# *Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko maiatzean*

## ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko maiatzean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.050 izan da, apirilean baino 378 gehiago eta joan den urteko maiatzean baino 637 gehiago. Egunean bataz bestez 50 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 15 eskaintza gehiago egunean. Hilabete honetako datuak ezin dira ulertu Covid-19ak sortutako pandemiaren bilakaera positiboa kontuan izan gabe.

### • LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko maiatzean 194 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 402 Gipuzkoan eta 454 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 43,2 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 38,3 Gipuzkoan eta % 18,5 Araban.




Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 74,8 hazi dira eskaintzak (83 eskaintza gehiago), Gipuzkoan hazkundea % 46,2koa izan da (127 eskaintza gehiago) eta, azkenik, Bizkaian % 58,7koa izan da hazkundea (168 eskaintza gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 126 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 185,3ko hazkundea, Gipuzkoan % 175,3 hazi dira (256 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 128,1 hazi dira (255 eskaintza gehiago).

### • LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 20,3a zerbitzuen lanbide-profilerako erregistratu dira (213 eskaintza); eta, %16,4a, tekniko laguntzaile profilerako (172 eskaintza). Industriako langileen, zientzia teknikarien eta kualifikatu gabeko profilen lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 165, 162 eta 147 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 9 eta 10 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, ondorengoa izan da bilakaera: zerbitzuetako langile eta laguntzako teknikarien profilekoak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (82 eskaintza gehiago bi kasuetan), eta azken hau izan da balore erlatiboetan gehien hazi dena (% 91,1eko hazkundea). Beste muturrean aurkitzen dira lehen sektoreko profileko eskaintzak, murriztu diren bakarrak izan dira (eskaintza 1 gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira profila edozein dela ere: balore absolutuetan, zerbitzuetako profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (137 eskaintza gehiago, % 180,3ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, operadoreen profilekoak izan dira (% 280ko hazkundea, 56 eskaintza gehiago).

## • KONTRATU MOTA




Erregistratutako lan-eskaintzen % 12,9k kontratu mugagabea eskaini dute; % 86,5ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,6ak, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 135 izan dira, aurreko hilabetean baino 42 eskaintza gehiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 336 eskaintza gehiago erregistratu dira: 908 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 58,7koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko maiatzean 7 izan dira, aurreko hileko kopuru bera.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 89 gehiago izan dira (% 193,5eko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 150,8hazi dira; 546 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, 2 gehiago erregistratu dira.

## • ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2021eko maiatzean erregistratutako lan-eskaintzen 2 herenek (756 eskaintza, % 72) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 14,4k (151 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,6ko pisua dute (27 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,5koa da (3 eskaintza).




Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (333 eskaintza gehiago, % 78,7ko hazkundea); hauei 1 eta 3 urte arteko esperientzia denbora eskatzen duten eskaintzak jarraitzen diete (34 eskaintza gehiago, % 43ko hazkundea).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, hau izan da bilakaera: 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira hazkunde handiena izan dutenak balio absolutuetan (484 eskaintza gehiago, % 177,9ko hazkundea). Aldi berean, balio erlatiboetan, 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien hazi direnak (% 200eko hazkundea, 2 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

## • LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 13,2k zehazten du datu hori (1.050 eskaintzetatik 139). 139 eskaintza horietatik, 105 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 34k, lanaldi partziala eskaini dute.




Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 24 gehiago izan dira apirilarekin alderatuz, hau da, % 29,6 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 5 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 17,2koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 60 gehiago izan dira (% 133,3ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 22 eskaintzakoa izan da hazkundea (% 183,3ko hazkundea).

## • ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 9 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 6 eskaintza gutxiago, eta 2020ko maiatzean baino 8 gehiago.

## • ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 83,9k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.050 eskaintzetatik 169k soilik zehaztu dute.




169 eskaintza horietatik, 77k LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, oinarrizko ikasketak eta unibertsitateko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, bi kasuetan 41 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (10 eskaintza).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, ikasketa maila guztietako eskaintzak hazi dira batxilergokoak izan ezik (hauen kopurua, berdin geratu da). Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, LHko ikasketak eskatzen dituzten izan dira (32 eskaintza gehiago, % 71,1eko hazkundea).

2020ko maiatzarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira: LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan ( 59 eskaintza gehiago, % 327,8ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (%900eko hazkundea, 9 eskaintza gehiago).

## • ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena industria izan da; honen pisua eskaintza guztien % 16,8koa izan da (176 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk, merkataritza eta jarduera administratiboak izan dira, eskaintzen % 13,6 eta % 10,1eko pisuarekin (143 eta 106 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz ia eskaintza guztiak hazi dira, murriztu diren bakarrak etxeko langileenak eta lehen sektorekoak izan dira (1 eta 2 eskaintza gutxiago, hurrenez hurren). Balio absolutuetan gehien hazi direnak industriako eskaintzak izan dira (79 eskaintza gehiago, % 18,4ko hazkundea); aldiz, balio erlatiboetan, bilakaera onena eduki dutenak ostalaritzako eskaintzak izan dira ( %207,1eko hazkundea, 58 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira ere; salbuespenak nekazaritza (7 eskaintza gutxiago) eta argindar horniketa izan dira (eskaintza 1 gutxiago). Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, industriakoak izan dira (108 eskaintza gehiago, % 158,8ko hazkundea). Balio erlatiboari erreparatuz, aldiz, ostalaritzako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 616,7 ko hazkundea, 74 eskaintza gehiago).